

MOZIO ARRUNTA,

LURRALDEBUSEKO BU05 LINEAREN ETA EUSKOTRENEKO ERREKALDE GELTOKIAREN ARTEKO INTERMODALITATEA DELA ETA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Lurraldebuseko BU05 linea eta Euskotreneko Errekalde geltokiaren arteko intermodalitatea dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Egun, Buruntzaldeko BU05 linearen ibilbidea EuskoTrenak Errekalde auzoan duen geltokitik oso gertu pasatzen da. Hala ere, linea honek ez du geralekurik bertan, eta hortaz ez du intermodalitatea sustatzen.

Aurtengo uztailaren 1a arte, Euskotrenetik gertuen zegoen Lurraldebuseko geltokia, Buruntzaldeko G2 linearena (egun BU05), GI-2132 errepidean Errekalde hiribideko 21. zenbakiaren inguruan zegoen. Esan beharra dago geltoki honek segurtasun aldetik gabezia asko zituela.

Uztailaren 1etik aurrera, emakida berria indarrean sartzearekin batera, Errekalde hiribideko 21. zenbakiko geltokia kendu eta urrundu egin dituzte Lurraldebuseko Buruntzaldeko BU05 (aurreko G2 linea) eta Euskotreneko geltokitik gertuen dauden autobus geltokiak, intermodalitatea sustatzeko aukerak baztertuz.

Badirudi aukera hobea izan dela aipatutako geltokia kentzea, egokitzea eta txukuntzea baino. Hortaz, orain erabiltzaileek gertuen topatuko duten geltokia GI-2132 errepidean dagoen gasolindegian dago, Euskotreneko Errekaldeko geltokitik 750 metrora. Kontuan hartu behar da, hemendik aurrera, 10 minutuko ibilbidea egin beharko dela oinez trafiko handiko errepide batean.

Mozio honen helburua Lurraldebuseko Buruntzaldeko BU05 linearen eta EuskoTrenako Errekaldeko geltokien arteko intermodalitatea baldintza duin eta seguruan burutzea sustatzea da.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia eh_bildu@donostia.eus

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Donostiako Udalarekin batera, Errekalde auzoko EuskoTreneko geltokiaren eta Lurraldebuseko Buruntzaldeko BU05 linearen arteko kalitatezko intemodalitatea bermatzeko, aproposa eta segurua den geltokia sortu dezala.

Donostian, 2021eko azaroaren 5ean

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea